

ELKARTEAK

Gure negozioa aurrera eramateko hainbat elkartek gurekin parte hartu dute. Hainbat motatako enpresa eta kooperatiba desberdinek izugarrizko garrantzia izan dute proiektu hau garatzeko.

The logo for ORBEA, featuring the word "ORBEA" in a bold, black, sans-serif font.

Durangoko udalari esker finantzaketa arloan laguntza asko jaso ditugu eta haiei esker hainbat sozietate garrantzitsurekin eztabaidatzeko funtsezkoak diren baliabideak lortu ditugu. Horren adibidea “Orbea” sozietatea da. Orbea bizikletak ekoizten dituen kooperatiba da eta gure bizikleta berrien eraikuntzan ideia eta laguntza asko eskaini digute. Aseguru Etxe baten kolaborazioa dugu, Lagun Aro kooperatibarena. Honi esker edozein motatako istripu bat baldin badago, haiek sendatzeko seguru bat egiten digute. Bizkaiko Foru Aldundia Durangon zehar, turismoa sustatzeko, finantzak eman dizkigu.

Patinete elektrikoak “JAGA BikeBoard” izeneko enpresa batek fabrikatzen du eta gero gure dendara etortzen dira produktu horiek saltzeko. Hau da, haiek materiala ematen dizkigute eta ondoren guk produktuak diseinatzen ditugu. Bertan, 13 langile lan egiten dute eta bakoitza bere kargua du. Adibidez, batek denda eramaten du, beste batek arduratzen da dendaren mantentze-lanean...

The logo for Jaga, featuring the word "Jaga" in a black, cursive script font.

BIKE • BOARD